# Bestelako Xedapenak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-5889

1/2002 ZIRKULARRA, irailaren 18koa, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailarena eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailarena, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (EPSV) eskubide finkatuen eskualdatzeari eta publizitateari buruzko hainbat alderdi arautzen dituena.

Otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuak, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Erregelamendua onesten duenak, mota horretako erakunde desberdinen artean erreserben esku-aldatzea arautzen du 31. d) artikuluan.

Estatutuetan posibilitate hori aurreikusten duten erakunde horietako bazkideei esku-aldatzeak errazteko asmoz, gizarte-aurreikuspeneko gaian eskudunak diren Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzak eta Finantza Zuzendaritzak ondoko jarduketa arauak ezarri dituzte:

Elkartekide batek Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde desberdinen artean finkaturiko eskubideen leku-aldatzeak eskatzen baditu, erakunde lagatzaileak egin beharko ditu leku-aldatze horiek, gehienez, 10 egun balioduneko epean, eskabide-egunetik kontatzen hasita. Esku-aldaketan izandako edozein berandutzek bazkideari kalte-ordaina ematera behartuko du erakunde eragilea, lekualdatu beharreko zenbatekoaren gaineko diruaren interes legala ordainduz eta ordainketa bera atzeratzen deneko egunengatik. Zigor horren berri emango zaie bazkideei erakundearen kontuak onesten dituen Ohiko Batzar Nagusian.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen artean finkaturiko eskubideen esku-aldaketak intsuldaturiko diru-kopuruaren guztirako %0,3ko gastua eragin ahal izango dio gehienez bazkideari. Adierazitakoaz bestelako zigorra edo lekualdatzeagatiko komisio-portzentajea ezarrita duten erakundeek bere Estatutu edo Erregelamenduetan aldatu beharko dute sei hilabeteko epean, zirkular hau indarrean sartzen denetik hasita.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetako bazkideek informazio baliokidea izan dezaten, eta erakunde horiek (edozein hedabide erabiliz) helburu komertzialekin egiten dituzten komunikazioen alderaketa okerrak ekiditeko asmoz, beren errentagarritasun his-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-5889

CIRCULAR 1/2002 de 18 de septiembre, del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco por la que se regulan diversos aspectos relativos al traslado de derechos consolidados así como a la publicidad que efectúan las E.P.S.V.

El Decreto 87/1984, de 20 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria, regula en su artículo 31 d) el traslado de reservas entre diferentes E.P.S.V.

Con la intención de facilitar los traslados a los socios de las E.P.S.V. que contemplen esta figura en sus Estatutos, la Dirección de Trabajo y Seguridad Social y la Dirección de Finanzas del Gobierno Vasco competentes en materia de previsión social, establecen las siguientes normas de actuación:

Los traslados de derechos consolidados entre diferentes EPSV solicitados por un asociado deberán efectuarse por la Entidad cedente en el plazo máximo de 10 días hábiles a contar desde la solicitud. Toda demora en el traslado ocasionará a la Entidad causante la obligación de indemnizar al socio con el abono del interés legal del dinero sobre la cantidad a trasladar y por los días en que el mismo se retrase. De la citada penalización se dará cuenta a los socios en la Asamblea General Ordinaria que apruebe las cuentas de la Entidad.

El traslado de derechos consolidados entre EPSV no podrá ocasionar al socio más gastos que el 0,3% de la cantidad total trasladada. Aquellas Entidades que tengan establecida alguna penalización o porcentaje de comisión por traslado distinto al señalado deberán modificarlo en sus Estatutos o Reglamentos en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de la presente Circular.

Para la equiparación informativa de cara a los socios de las E.P.S.V., y al efecto de evitar comparativas erróneas en toda aquella comunicación con fines comerciales que emitan las Entidades utilizando cualquier medio de difusión, éstas deberán facilitar sus rentabilida-

toriko zein urterokoak, inbertsio finantzarioak baloratuz, merkatuko prezioaren irizpidepean eman beharko dituzte.

Jarduketa hauek guztiek bateragarriak behar dute izan Lan eta Gizarte Segurtasun zuzendariak 1998ko abenduaren 22ko zirkularrean ezarritakoekin.

Zirkular hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko irailaren 18a.

Finantza zuzendaria,
MIGUEL BENGOECHEA ROMERO.

Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordea,
IÑAKI ZABALA ZABALA.

des tanto históricas como anuales valorando sus inversiones financieras a precio de mercado.

Todas estas actuaciones deberán compatibilizarse con las establecidas en la Circular de 22 de diciembre de 1998 del Director de Trabajo y Seguridad Social.

La presente Circular entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2002.

El Director de Finanzas,
MIGUEL BENGOECHEA ROMERO.

El Viceconsejero de Trabajo y Seguridad Social,
IÑAKI ZABALA ZABALA.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## Zk-5890

232/2002 DEKRETUA, urriaren 8koa, Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuko lanpostuen zerrenda onartzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak Lanbide Heziketako Euskal Plana onartu zuen 1997ko apirilaren 22ko bileran. Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabaki honen bidez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak hasitako lanari amaiera eman zitzaion; izan ere, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak 1997ko martxoaren 24ko bilkura berezian onartu zuen Lanbide Heziketako Euskal Plana.

Lanbide Heziketako Euskal Planak sistema bakarrean sartu nahi ditu gure Autonomia Erkidegoan indarrean dauden lanbide-koalifikazioak eta horiei lotutako Lanbide Heziketa. Horrela, erreferente komuna izango dute ikasle gazteei zuzendutako Hastapeneko Lanbide Heziketa Arautuak, langabezian dagoen jendearentzako lanerako Lanbide Heziketak eta langileei zuzendutako Etengabeko Lanbide Heziketak.

Lanbide Heziketako Euskal Planak definitutako Lanbide Heziketako Sistema Integratuaren elementu-ardatzetako bat honako hau da: Lanerako Koalifikazioen Sistema bat ezartzea eztabaida-, kontsentsu- eta hedapen-prozesu batean. Helburu horrekin sortu zen Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua 1998ko ekainaren 23ko 119/1998 Dekretuaren bitartez. Dekretu horren egitekoetako bat zera zen: Lanbide Koalifikazioen Sistema ezartzea eta bultzatzea.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## N°-5890

DECRETO 232/2002 de 8 de octubre, por el que se aprueba la Relación de Puestos de Trabajo del Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional.

El Plan Vasco de Formación Profesional fue aprobado por el Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el 22 de abril de 1997. Este acuerdo de Consejo de Gobierno culminaba el trabajo realizado por el Consejo Vasco de Formación Profesional que en su sesión extraordinaria del Pleno del día 24 de marzo de 1997 aprobaba dicho Plan Vasco de Formación Profesional.

Este Plan pretende integrar en un único sistema, las Cualificaciones Profesionales en vigor en nuestra Comunidad Autónoma y la Formación Profesional asociada a ellas. De este forma, se consigue un único referente común para la Formación Profesional Inicial Reglada dirigida a jóvenes escolares, la Formación Profesional Ocupacional dirigida a personas en paro y la Formación Profesional Continua dirigida a los trabajadores.

Entre los elementos clave del Sistema Integrado de Formación Profesional definidos en el Plan Vasco de Formación Profesional está el de establecer un sistema de Cualificaciones Profesionales en un proceso de debate, consenso y difusión de sus características. Con este fin se ha creado el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional mediante el Decreto 119/1998, de 23 de junio de 1998, entre cuyos cometidos están los de establecer y promover la implantación del Sistema de Cualificaciones Profesionales.